

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 140/2023 FORU DEKRETUA, irailaren 7koa, zeinaren bidez erabakitzen da «BizkaiBizi» zerbitzu publikoa eskuratzeko eta erabiltzeko erreglamendua ezartzekoa.**

I

Martxoaren 4ko 2/2011 Legeak, Ekonomia Jasangarriari buruzkoak, mugikortasun jasangarriari eskaintzen dio III. tituluko III. kapitulua, eta administrazioei, beren eskumenen esparruan, agindua ezartzen die mugikortasun jasangarriko politikak sustatzeko, besteak beste garraio-zerbitzu berriak ezartzeko printzipioa errespetatuko dutenak. Ezarpen hori inbertsio eta mantentze-kostuekin bat datorren eskariak baldintzatuta egongo da, eta kontuan hartuko ditu, betiere, kalitate, prezio eta segurtasun egokia izango duten ordezeko garraio-bideak, baita haien ingurumen-ebaluazioaren emaitzak ere.

Arau horren 100. artikulua mugikortasun jasangarriko politikaren helburuak ezartzen ditu, honako hauek lortzeko izan beharko direnak:

1. Hiriko ingurumena eta herritarren osasuna eta segurtasuna hobetzen eta ekonomia eraginkorragoa lortzen laguntzea, natura-baliabideen erabilera arrazionalago bati esker.
2. Hiri- eta ekonomia-garapeneko politikak eta mugikortasunekoak integratzea, ohiko joan-etorriak gutxienez murrizteko, eta oinarrizko zerbitzuetara irisgarritasun eraginkorra, efizientea eta segurua izatea errazteko ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiarekin.
3. Energia-kontsumoaren murrizketa eta energia-efizientziaren hobekuntza sustatzea, horretarako kontuan hartuta eskaria kudeatzeko politikak.
4. Gizarte-, ekonomia-, ingurumen- eta energia-kostu txikiarekin garraio-bideak sustatzea, pertsonentzat zein salgaiantzat, baita garraio publiko eta kolektiboaren eta motorrik gabeko beste garraio-bide batzuen erabilera ere.
5. Garraio-bideen modalitatea eta intermodalitatea sustatzea, kontuan hartuta ibilgailu pribatuaren ordez beste garraio-bide batzuk garatzea ahalbidetzen duten garraio-sare eta -moduak.

Osasunarekin eta ingurumenerako kaltegarriak diren isuriak murriztearekin lotutako mugikortasun jasangarriko helburuak lortzeko, lehentasunezkoa da gutxiago kutsatzen duten eta osasunerako onuragarriagoak diren mugikortasun-aukeren kuota modala handitzea; hau da, oinez eta bizikletaz ibiltzea sustatzea. Aukera horiei jarraitu behar diete, lehentasun-hurrenkeran, garraio publikoak eta intermodalitateak, trakzio mekanikoko ibilgailu pribatuaren erabileraren aurrean; izan ere, frogatu da ibilgailua oso kutsatzaileria dela —isurtzen dituen berotegi-efektuko gasak direla eta—, ez-efizientea, osasun publikoan eragina duela eta berekin dakartzala haren erabilerari lotutako istripu-tasa bat egotea eta hiriko espazio publikoaren okupazioa.

Bizikleta publikoaren zeregina da bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzea, orokorrean, herritarren eskura kalitatezko bizikleta-zerbitzu unibertsal bat jarrita; hartara, helburu honetan laguntzeko: biztanleriak, oro har, eguneroko mugikortasunean automobilararen ordez bizikleta erabiltzeko ohitura har dezala, dela zerbitzu publikoak erabiliz, dela bizikleta pribatua erabiliz.

II

Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 2/2011 Legearen 100. artikuluan jasotako helburu zehatzak lortzea erraztuko duen mugikortasun jasangarria sustatzeko, Bizkai-



ko Foru Aldundiak eta itsasadarren bi aldeetako bederatzi (9) udalek (Barakaldo, Berango, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao) lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten 2022ko otsailan, bizikletak alokatzeko zerbitzu publiko bat ezartzeko, BizkaiBizi izenekoa, eta konpromiso irmoa hartu zuten bizikleta garraio-sistema arruntan sar dadin sustatzeko, beste garraio-bideen ordeko gisa; mugikortasun jasangarria sustatzeko konpromiso horretatik abiatuta, herritarrei bizikleten mailegu-zerbitzu publiko bat eskaintzeko apustua egin dute, herritarrek ingurumenaren aldetik jasangarria den garraio-bide bat izan dezaten hiriarteko joan-etorrietarako. Proiektuak helburu du ahalik eta pertsona gehienek erabil dezatela bizikleta hitzarmena sinatu duten udalerrien artean egiten diren eguneroko joan-etorrietan, eta Bilboko metropoli-ingurunean dauden nahitaezko mugikortasuneko premiei erantzuteko pentsatuta dago; hala ere, etorkizunean handitu egin ahal izango da BizkaiBizi proiektuaren proiektzio-eremu geografikoa.

BizkaiBizi foru-proiektuak herritarren eskura jarriko duen bizikleta-flota pedalei eragiteko laguntza duten bizikletek —bizikleta elektrikoek— osatuko dute.

Zerbitzua behar bezala erregistratuta dauden eta BizkaiBizi zerbitzuarekiko bete-beharrak egunean dituzten erabiltzaileek bakarrik erabili ahal izango dute. Zerbitzua eskuratu eta behar bezala erabiltzeko, beharrezkoa da zenbait xedapen ezartzea, erabiltzaileak zehatz-mehatz eta argi jakin dezan zein diren bizikleten mailegurako BizkaiBizi zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko arauak, bai eta BizkaiBizi zerbitzua finantzatzeko erabiliko diren prezio publikoak ere.

### III

Zerbitzuaren eskurapen eta erabilera arautzeko planteatzen diren bideak izango dira erregelamendu hau eta ordu-tarte jakin batzuetan bizikletak erabiltzeagatik kobratuko den ordain ekonomikoa, jendeari emandako zerbitzuaren zentzuzko erabilera sustatzeko helburua izango duena. Erabiltzaileek bizikletak erabiltzeagatik ordaindu beharko duten ordain ekonomikoa eta zerbitzuan alta emanda egoteagatik ordaindu beharreko kuota prezio publikoak izango dira.

BizkaiBizi zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko erregelamendu honetan jasotako araubideak, eta, hedaduraz, dagokion prezio publikoan jasotakoak, helburu du BizkaiBizi foru-zerbitzuak berezko dituen ezaugarriak mantentzea —jasangarria izatea, unibertsa-la, zerbitzua etengabekoa eta kalitatezkoa.

### IV

Xedapena onartzeko organoak duen eskumenari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2.a). artikulua arabera Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari dagokio arau-xedapen hau behin-betiko onartzea.

Azaldutakoa dela bide, Garraioak, Mugikortasun eta Turismoa sustatzeko Saileko foru-diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau:

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. — *Xedea*

Erregelamendu honen helburua da Bizkaiko bizikleta publikoko foru-zerbitzua (aurreantzean, BizkaiBizi zerbitzua) eskuratzeko eta erabiltzeko baldintza orokorrak arautzea.

Bizikleten mailegurako BizkaiBizi zerbitzua pedalei eragiteko laguntza duten bizikleten banakako mailegurako publikoari ematen zaion zerbitzu bat da, borondatezkoa, helburu duena mugikortasun jasangarria sustatzea eta bultzatzea garraio-bide osasungarri, jasangarri eta ez-kutsatzaile hau Barakaldo, Berango, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao udalerrietan joan-etorriak egiteko erabiliz, zerbitzua



eskuratzeko eta erabiltzeko erregelamendu honetan jasotzen diren erabilera-baldintzen arabera.

## **2. artikulua. — Zerbitzua erabiltzeko lurralde eremua**

BizkaiBizi zerbitzuaren lurralde-eremua metropoliko 9 udalerrik osatzen dute: Barakaldo, Berango, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao. Hala ere, etorkizunean handitu egin daiteke BizkaiBizi proiektuaren proiektzio-eremu geografikoa, BizkaiBizi zerbitzuaren hiriarteko zerbitzuari berezko zaion mugikortasun jasangarriaren alde lankidetzan jardunez parte hartu nahi duten beste toki-erakunde batzuekin hitzarmenak sinatuta.

Zerbitzuaren bi estazioen arteko bizikleta-ibilaldiak osorik egin ahal izateko, 9 udalerrietako hiriguneen artean baimenduko da bizikletaren erabilera. Ondorio horietarako, eta bizikleten mailegurako egon daitezkeen tokiko zerbitzuen eta hiriarteko BizkaiBizi foru-zerbitzuaren arteko bizikidetzatza modu baketsu, koordinatu eta efizientean arautu ahal izateko, betiere, bi zerbitzu-motek (udalekoak eta aldundikoak) elkarren artean duten interakzioa ahalik eta optimizatuena izan dadin, dagozkion lankidetzatza-hitzarmenak izenpetu ahal izango dira.

## II. KAPITULUA

### ZERBITZUAREN ERABILERA

#### I. ATALA

#### ZERBITZUKO ALTEI ETA BAJEI BURUZKO XEDAPENAK

## **3. artikulua. — Bizkaibizi zerbitzuan erabiltzaile gisa alta emateko baldintzak**

BizkaiBizi zerbitzua erabili ahal izateko, erabiltzaileek alta eman beharko dute erregelamendu honen hurrengo artikuluetan deskribatutako prozedurari jarraituz.

BizkaiBizi zerbitzuan erabiltzaile gisa alta eman dezakete adinez nagusiak diren pertsonak, jarraian deskribatutako prozedurari jarraituz.

16 eta 17 urteko pertsonak alta eman dezakete BizkaiBizi zerbitzuan baldin eta behar bezala beteta aurkezten badute aitak/amak edo legezko tutoreak sinatutako baimen bat, non deklaratu den hark erabiltzaile adingabearen erantzukizuna bere gain hartzen duela. Baimenarekin batera, aitak/amak edo legezko tutoreak bere NANaren fotokopia bat, erabiltzaile adingabearen NANaren fotokopia bat eta familia-liburuaren fotokopia bat bidali beharko ditu. Kasu horretan, alta gauzatuko da BizkaiBizi zerbitzuak jasotako dokumentazioa aztertu eta onartzen duenean.

Pertsona beraren izenean alta bat baino gehiago egon ez dadin, debekatuta geratzen da erabiltzaile berak bigarren alta bat izapidetzea alde aurretik ez badu dagokion baja eman. Horrekin bermatu nahi da BizkaiBizi zerbitzuak izan ditzakeen erabiltzaile guztiek zerbitzu hori eskuratu ahal izatea, kontuan hartuta baliabideak mugatuak direla.

BizkaiBizi zerbitzuan alta emateak esan nahiko du erabiltzaileak espresuki onartzen dituela zerbitzua eskuratu eta erabiltzeko erregelamendu honetan jasotzen diren baldintzak, prezio publikoaren araudia, baita BizkaiBizi zerbitzuaren elementuetan (bizikletak, estazioak, mugikorrerako aplikazioa) jasotzen den informazioa ere.

## **4. artikulua. — Alta emateko prozedura.**

Aurreko baldintzak betetzen dituzten pertsonak, zerbitzuan alta eman nahi izanez gero, jarraian zehazten den prozeduraren arabera jardun beharko dute:

Alta eman nahi duen pertsonak BizkaiBizi zerbitzuaren webgunean ([www.bizkaibizi.eus](http://www.bizkaibizi.eus)) edo aplikazio mugikorrean sartu eta izena eman beharko du, nahi duen abonumota aukeratu eta dokumentu honetan ezartzen diren baldintzak espresuki onartu.

Izena emateko prozesuan eskatuko diren dokumentuak eta datuak desberdinak izan daitezke ordaintzeko aukeratutako moduaren arabera.



Zerbitzuaren webgunean edo aplikazio mugikorrean, dagokion atalean, zerbitzuaren baldintzak onartzeko laukitxoa markatzeak berekin dakar erabiltzaileak deklaratzeko ezagutzen duela erregelamendu honetako arauen edukia — BizkaiBizi zerbitzuaren webgunean ([www.bizkaibizi.eus](http://www.bizkaibizi.eus)) eskuragarri egongo dena— eta haiek espresuki onartzea.

Alta emateko izapidea egin ondoren —izapide horretan zordunketa- edo kreditu-txartelaren datuak eman behar dira nahitaez— erabiltzaileak posta elektronikoz jasoko du baieztapena.

#### **5. artikulua. — *Alta gauzatzea***

Alta emateko prozedura amaitu ondoren, alta gauzaturat emango da.

#### **6. artikulua. — *Prezioa ordaintzea***

Urteko kuota bat duten abonuen kasuan, abonua indarraldia amaitu baino 14 egun natural lehenago, BizkaiBizi zerbitzuak indarraldia amaituko dela jakinaraziko dio posta elektronikoz abonuari, eta hark, nahi izanez gero, aukera izango du baja emateko ezarritako prozeduraren arabera. Abonua indarraldia amaitu baino 7 egun natural lehenago arte ez bada borondatezko baja hori izapidetzen prozedurari jarraikiz, ulertuko da erabiltzaileak abonua mantendu nahi duela eta automatikoki berrituko da.

#### **7. artikulua. — *Altak mugatzea zerbitzuaren egoeraren arabera***

Kontuan hartuta zerbitzuari esleitutako baliabideak mugatuak direla, erabiltzaile abonatu berrien onarpena mugatu egin daiteke zerbitzuaren saturazio-mailaren arabera. Beharrezkoa izanez gero, itzarote-zerrenda bat ezarriko da alta-eskaeren hurrenkeraren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak arautua..

#### **8. artikulua. — *Zorrak***

Erabiltzaileei baja emango zaie zerbitzuan egoera hauetako bat gertatzen denean:

##### **a) *Borondatezko baja***

Erabiltzaileak, nahi izanez gero, baja eman ahal izango du zerbitzuan baja emateko prozeduraren bidez, Internetetik edo aplikazio mugikorretik. Zerbitzuan baja eman nahi duenak abonua automatikoki berritzeari dagokion aukera aldatu beharko du webgunean ([www.bizkaibizi.eus](http://www.bizkaibizi.eus)) horretarako sortutako eremuan. Erabiltzaileak zerbitzua erabiltzen jarraitu ahal izango du abonua indarraldia amaitzen den egunera arte, eta indarraldi hori amaitutakoan, ez da berrituko.

##### **b) *Ez-betetzeen ondoriozko baja***

BizkaBizi bizikleta publikoen zerbitzuak baja eman ahal izango dio erabiltzaile bati hark erregelamendu honetako V. kapituluaren aurreikusitako ez-betetzeren bat eginez gero. Edonola ere, ez-betetze bat egiteagatik baja emango dela deklaratu aurretik, ez-betetze horri dagokion prozedura izapidetu behar da, erregelamendu honen 24. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

## II. ATALA

### ABONUAK, ORDUTEGIAK ETA TARIFAK

#### **9. artikulua. — *Abonu motak***

Erabiltzailea aktibo egongo da aukeratzen duen abonumotari dagokion aldiaren.

Bi motatako abonua daude: Urtekoa eta urtebetetik beherakoa.

Urteko abonua kasuan, erabiltzailea aktibo egongo da urtebetetz (alta ematen den unetik kontatzen hasita), ez-betetzeetarako aurreikusitako neurriak aplikatzeari dagokionez baldintza hauetan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Urtebetetik beherako abonua kasuan, erabiltzailea aktibo egongo da aukeratu duen modalitatean ezarritakoari dagokion aldiaren, ez betetzearen kasuan ezarritakoa gora-behera..



3. artikuluan aipatutako bikoiztasunak gerta ez daitezzen, ezin izango da abonumota aldatu hura indarrean dagoen artean; hala, bada, ezin izango da aldatu hura amaitu arte, edo erabiltzaileak indarrean dagoen abonuan baja izapidetu arte.

Urteko abonua indarraldia amaitzen denean, automatikoki berrituko da beste urtebeterako, erreglamendu honen 6. artikuluan ezarritakoarekin bat.

#### **10. artikulua.— *Ordutegiak eta tarifak***

BizkaiBizi zerbitzua erabilgarri egongo da egunean 19 orduz, asteko 7 egunetan.

Bizikletak 05:00ak eta 24:00ak bitartean hartu edo itzuli ahal izango dira.

Hala ere, interes publikoko arrazoi puntualak direla eta, Bizkaiko Foru Aldundiak murrizketa operatiboak ezarri ahal izango ditu bizikletak hartzeari dagokionez, edo luza-pen operatiboak haiek itzultzeari dagokionez; aldaketa horiek zerbitzuaren webgunean zehaztuko dira.

Ordutegiak eta tarifak Bizkaiko Foru Aldundiak une bakoitzean erabakitzen dituenak izango dira.

Tarifak prezio publikoak izango dira eta Bizkaiko Foru Aldundiak onartuko ditu. Indarrean dauden ordutegiei eta tarifei zerbitzuaren webgunean emango zaie zabalkundea.

Tarifei dagokienez:

- a) Urteko kuota bat ezarri ahal izango da abonua bat edukitzeagatik.
- b) Abonua arabera, erabilera-denboraren arabera tarifak ezarri ahal izango dira, baita doakotasun-aldiak ere.
- c) Tarifetan beste zerbitzu batzuk ere sartu ahal izango dira, esaterako, bizikleta-ibilaldia estazio batean amaitu ez direlako bizikleta bat berreskuratzeari dagokiona.

Erabilera-denbora BizkaiBizi zerbitzuaren kontrol-plataforman erregistratutako datuen arabera zehaztuko da, eta datu horiek izango dira erabilera-aldia zein izan den egiaztatzeko froga fede-emailea.

### III. ATALA

#### **ERABILERA-BALDINTZA OROKORRAK**

#### **11. artikulua.— *Erabilera baldintza orokorrak***

Erabiltzaileak eskubidea izango du bizikleta bat erabiltzeko eta bizikleta hori, publikoari ematen zaion zerbitzu baten funtzionamenduari lotutako ondasun bat izanik, erabilera publikokotzat jotzen da.

Bizikleta, erabiltzen hasteko, estazio batean hartu beharko da zerbitzuko aplikazio mugikorra erabiliz, edo, hala badagokio, Barik txartela erabiliz, baldin eta txartela BizkaiBizi zerbitzua erabiltzeko gaituta badago. Bizikleta hartzeko uneak markatuko du indarrean dauden tarifen arabera ordaindu beharrekoa den aldiaren hasiera.

Bizikleta-ibilaldia amaitutakoan, erabiltzaileak estazio fisiko batean edo, hala badagokio, estazio birtual batean aparkatuko du bizikleta publikoa. Bizikleta aparkatzeko uneak markatuko du indarrean dauden tarifen arabera ordaindu beharrekoa den aldiaren amaiera.

Oro har, estazio birtualak dira interes publikoko inguruabar zehatzak direla eta (kultura-ekitaldi handiak, etab.) ordezko mugikortasun-bideen eskarian egon daitekeen hazkundeari erantzun ahal izateko gaituko direnak. Eremu birtual horiek zerbitzuaren webgunean zehaztuko dira.

Gainera, estazio fisikoek eurek estazio birtual modura funtzionatu ahal izango dute, haietan bizikleta aparkatu ahal izateko, estazioetako aforoa gaitu denean edo bizikletak ainguratzeari eragozten duen beste edozein arrazoi gertatzen denean; kasu horietan ere, bizikleta blokeatu eta desaktibatu egin beharko da.



Foru-zerbitzu hau publiko guztiarentzat erabilgarri egon dadin, erabiltzaile berak ezin izango du bizikleta bat baino gehiago maileguan hartu aldi berean. Zerbitzua berriz erabiltzen den bakoitzean, ezarritako arauak onartzen direla ulertuko da.

Barik txartelari egindako aipamenari dagokionez, garraio publikoan intermodalitatea errazte aldera, Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin dagokion hitzarmena sinatu ahal izango da BizkaiBizi zerbitzuaren abonua edo zerbitzu horren garraio publikoko tituluak Barik txartelean integratzeko.

Hori gorabehera, Barik txartelak BizkaiBizi sisteman bizikleta hartzeko balioko du, baina horretarako bakarrik.

## **12. artikulua.— Bizikleta bat hartzeko prozedura**

Bizikleta bat estazio batetik hartzeko prozedura jarraian zehazten dena da:

- a) Erabiltzaileak bizikleta bat eskatuko du bere aplikazio mugikorrarekin; horretarako, bizikletan dagoen QR kodea irakurriko du, edo, hala badagokio, Barik txartela pasatuko du bizikletan dagoen irakurgailutik.
- b) Bizikleta hartuko da.
- c) Jarraian, bizikleta aktibatu eta egiaztatuko du (bereziki, bateria-kargaren maila), bizikletan bertan adierazitako jarraibideen arabera

Erabiltzaileak bizikletan akatsen bat ikusiz gero, abisua emango dio Arreta Bulegoari zerbitzuaren webgunean dagoen doako telefonora deituta, eta bulegotik emandako jarraibideen arabera jokatu du. Oro har, erabiltzaileak bizikleta itzuli, bizikleta-ibilaldia bukatutzat eman eta beste bizikleta bat hartu beharko du.

Bizikleta aktibatu eta behar bezala dagoela egiaztatzen badu, erabiltzaileak bizikleta-ibilaldiari ekin ahal izango dio.

Edonola ere, erabiltzaileak zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko arau hauek bete beharko ditu; arauon zabalkundea zerbitzuaren webgunean, aplikazio mugikorrean edo, hala badagokio, estazioan bertan egingo da.

## **13. artikulua.— Bizikleta bat itzultzeko prozedura**

Bizikleta-ibilaldia amaitutakoan, bizikleta estazio batean aparkatu beharko da (estazio fisikoan edo, hala badagokio, birtualean), hutsik dagoen plaza batean, prozedura orokor honi jarraituz:

- a) Erabiltzaileak bizikleta aparkatuko du nahi duen plazan (plaza fisikoa edo, hala badagokio, birtuala) eta bizikleta desaktibatuko du bizikletan bertan, estazioan edo aplikazio mugikorrean adierazitako jarraibideen arabera.
- b) Bizikleta desaktibatutakoan, erabiltzaileak egiaztatuko du ondo blokeatuta geratu dela. Erabiltzaileak eragiketa behar bezala bukatu dela egiaztatu behar du.

Gainera, estazio fisikoek eurek estazio birtual modura funtzionatu ahal izango dute, bizikleta itzultzeko unean estazioetako aforoa gaindituta dagoenean, eta bizikleta haietan aparkatu ahal izango da, estazio fisikoak hartzen duen eremuan; kasu horietan ere, bizikleta blokeatu eta desaktibatu egin beharko da.

Egin beharreko egiaztapenak egin ondoren erabiltzaileak akatsen bat ikusiz gero, abisua eman beharko dio Arreta Bulegoari bulegoaren doako telefonora deituta (24 orduko arreta-zerbitzua), edo webgunea zein aplikazio mugikorra erabilita.

Edonola ere, erabiltzaileak zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko arau hauek bete beharko ditu; arauon zabalkundea zerbitzuaren webgunean, aplikazio mugikorrean edo, hala badagokio, estazioan bertan egingo da.



## IV. ATALA

**ERABILERA-BALDINTZA BEREZIAK****14. artikulua.— Erabilera baldintza bereziak**

Bizikleta baten erabilera-denbora hasten da bizikleta bat aktibatzen eta desblokeatzen denean (estazio batean, fisikoa zein birtuala), eta amaitzen da bizikleta blokeatzen eta desaktibatzen denean (estazio batean, fisikoa zein birtuala); horren ostean, bizikleta eskuragarri geratzen da beste erabiltzaile batentzat.

Ezin da alokatu edo helburu komertzialetarako erabili bizikleta publikoko zerbitzua osatzen duen elementurik, hala nola, erabiltzaile-kontua, bizikletak edo estazioak.

Bizikletan egindako ibilaldiren batean gorabeherarik izanez gero (matxura, bateria agortzea, ekintza bandaliko edo gizalegearen aurkakoa, istripua, lapurreta, plaza huts bat aurkitu ezin izatea, etab.), erabiltzaileak berehala eman beharko dio horren berri Arreta Bulegoari eta bulegotik emandako jarraibideen arabera jokatu beharko du.

Edozein arrazoi dela-eta —ezinbesteko arrazoiak kenduta— bizikleta bat abando-natua uzten bada zerbitzuaren erabilera erregelamendu honen 11. eta 13. artikuluetan aurreikusitako baldintzetan amaitu gabe, horretan tartean sartutako erabiltzaileak aurre egin beharko die bizikleta berreskuratzeko kostuari, bizikletak izan ditzakeen kalteei eta kasuan kasuko tarifaren ordainketari.

Bizikleta bat aurreikusitako ordutegitik kanpo itzuliz gero, tartean sartutako erabiltzaileak prezio publikoen arabera dagokion tarifa ordaindu beharko du; horrek ez du erago-tziko 25. artikuluan jasotako baldintzen araberrako ez-betetze bat ere egon dela ezartzea, gehiegizko erabilera-denbora horretarako bestekoa bada.

## V. ATALA

**ZERBITZUAREN ERABILERAREKIN LOTUTAKO MUGAK ETA DEBEKUAK****15. artikulua.— Zerbitzuaren erabilaren mugak**

Bizikleta publikoko zerbitzua erabiltzeko ezarritako ordutegi-mugak gaindituz gero, erabiltzaileak ohiko tarifa eta gehiegizko denborari dagokion tarifa ordaindu beharko ditu indarrean dauden tarifen arabera.

Betiere, ez-betetzetzat joko da bizikleta hogeita lau (24) orduan baino luzaroagoan erabili edo edukitzea. Kontuan hartuta zerbitzuari atxikitako ondasunak mugatuak direla, ulertzen da hogeita lau (24) ordutik gorako erabilera hori zalantzarik gertatzen dela zerbitzuaren bokazio publikoari dagokionez eta BizkaiBizi zerbitzuari lotutako ondasunen erabilera pribatiboaren ildotik doala.

Interes publikoko arrazoi justifikatuak direla-eta, bizikleta publikoko zerbitzuak eskubidea gordetzen du zerbitzuaren erabilera-ordutegia, estazioak zabalik egoteko ordutegia eta haien kokapena aldatzeko, alde zuretik abisurik eman gabe. Horren berri zerbitzuaren web orriaren bidez emango da, ahalik eta lasterren.

Estazio bat oso erabilia izan daiteke eta gerta daiteke bermatuta ez egotea bertan bizikleta bat eskuragarri egongo denik edo bizikleta itzultzeko plaza bat libre egongo denik, baina egoera horrek ez dio inolako eskubiderik emango erabiltzaileari dirua bueltan jasotzeko edo kalte-ordain bat izateko. Halaber, ez da inolako ondare-erantzukizunik sortuko foru-erakundearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik bizikleta estazio jakin batean itzuli ezin bada edo, berdin, foru-aldundi honekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, zerbitzua une jakin batean erabilgarri ez badago.

Bizikletak hartzeko berandueneko ordu bat ezarriko da (24:00ak baino lehen). Ordu hori zerbitzuaren webgunean argitaratuta egongo da eta aldatu egin ahal izango da, inguruabar bereziengatik (inguruabar horien berri ere webgunean emango da).

Artikulu honetan bizikletak erabiltzeko eta edukitzeko aurreikusitako gehieneko denboraren ildotik, bizikleta bat ez bada itzuli hura hartu eta 24 orduko epearen barruan, zerbitzuaren kudeatzaileak hura berreskuratzeko prozedurari ekingo dio eta tartean sartutako erabiltzaileari horren berri emango dio (telefonoz, posta elektronikoz edo SMS



bidez). Kasu horietan, erabiltzaileak aurre egin beharko die bizikleta aurkitu eta lekura eramateak eragin ditzakeen gastuei, erregelamendu honen eranskinean kalte-ordainetarako ezarritako prezioen arabera, eta zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifa ere ordaindu beharko du, baita, hala badagokio, kasuan kasuko ez-betetzeari dagokiona ere.

**16. artikulua. — Bizkaibizi kontuaren izaera pertsonala eta besterenezina**

Bizkaibizi kontu bati lotutako bizikleta publikoko zerbitzuaren erabilera pertsonala eta besterenezina izango da, eta ezin izango zaie hirugarren batzuei laga; erabileraren indaraldia kontratatutako abonu-motari dagokiona izango da.

Abonu bati lotutako kontu batek ezaugarri hauek ditu:

- Baliozkoa izango da erabiltzaileari zerbitzuan baja eman arte.
- Eskubidea ematen du foru-aldundiaren bizikleta publikoko zerbitzuaren erabilera publikoko bizikleta batekin ibilaldi bat egiteko; hori guztia, kasuan kasuko abonua-  
ren mugen barruan

Erabiltzaileak ezin ditu transferitu Bizkaibizi zerbitzuan alta ematean eskuratutako eskubideak.

Erabiltzaileak konpromisoa hartzen du bere erabiltzaile-kontua mantentzeko eta behar bezala erabiltzeko.

**17. artikulua. — Berriazko debekuak**

Bizkaibiziren erabiltzaileei berriaz debekatzen zaizkie honako jokabide hauek:

- a) Bizikleta erregelamendu honen bigarren artikuluan deskribatutako lurralde-eremutik kanpo erabiltzea.
- b) Bizikleta zolatu gabeko eremu edo bideetatik edo zirkulatzeko egokiak ez diren lekuetatik erabiltzea.
- c) Honako hauek osorik edo partzialki desmuntatzea eta/edo manipulatzeko: bizikleta, estazioak edo haien osagaiak.
- d) Bizikleta edo estazioak helburu komertzialetarako erabiltzea.
- e) Bizikletan eta/edo estazioan esloganak, irudiak edo antzekoak pintatzea.
- f) Bizikleta-ibilaldian, bizikleta ganean mugikorra edo bizikleta behar bezala erabiltzea zailtzen edo arriskuan jartzen duen bestelako gailuak erabiltzea.
- g) Beste pertsona batzuk, animaliak edo tamaina handiko objektuak garraiatzea.
- h) Bizikleta-ibilaldi batean bizikleta abandonatzea edo baten bati lagatzea, ezinbesteko kasuetan izan ezik

Bizikleta justifikaziorik gabe abandonatuz gero (ezinbesteko kasuetan izan ezik), dagozkion tarifa ordainarazteaz gain, egoki diren neurriak hartuko dira, 26. artikuluan 25. artikuluekin lotuta ezartzen direnak, bizikletari eragindako kalteak ordainarazteko, baita bizikleta berreskuratzeari dagozkionak ordainarazteko ere.

Ezinbesteko arrazoiengatik bizikleta abandonatuz gero, Bizkaibiziri horren berri eman beharko zaio ahalik eta lasterren, hau da, abandonua gertatu denetik 30 minutu igaro baino lehen.

**VI. ATALA****ZERBITZUA ORDAINITZEA****18. artikulua. — Zerbitzua ordaintzea**

Kuotei dagozkien ordainketak eta zerbitzuaren erabileraren arabera egin beharrekoak kreditu- edo zordunketa-txartel baten bidez egingo dira.

Erabiltzaileak bere kreditu- edo zordunketa-txartelean egon daitezkeen aldaketak eguneratu beharko ditu, eta txartelaren funtzionamenduan egon daitezkeen gorabeheren berri eman





Emandako txartelari dagokionez, erabiltzaileak onartu egiten du zerbitzuaren kudeatzaileari baimen iraunkor bat ematea BizkaiBizi zerbitzuaren abonua indarrean duen artean zerbitzuei dagozkien karguak egin dakizkion (kargu horiek webgunean jarriko dira zabalkunderako, tarifen atalean, Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunak onartu ondoren).

3. artikuluan aipatzen diren adingabeek haien ardua daukan pertsonaren baimena aurkeztu beharko dute, hartara, zerbitzuari dagozkion zenbatekoak/karguak kobratu ahal daitezen horretarako zehaztu den txartelean.

## VII. ATALA

### ZERBITZUA IKUSKATZEA

#### 19. artikulua.— *Zerbitzua gainbegiratzea*

Zerbitzuaren kudeatzaileak lan teknikoak egiteko eta zerbitzua gainbegiratzeko baimendutako langileak esleituko ditu; langile horiek erabiltzaileei laguntza emango diete, eta zerbitzuak behar bezala funtzionatzen duela zaintzeaz arduratuko dira.

Langile horiek estazio batetik bestera ibiliko dira, baita zerbitzuaren lurralde-eremu guztian zehar ere

Erabiltzaileek kontsultak egin ahal izango dizkiete gainbegiraleei, hartara, zerbitzua behar bezala erabiltzeko beharrezkoak diren prozesu guztietan (estazioetan bizikletak ainguratzea eta desainguratzea, bizikleten funtzionamendua, etab.) aholkularitza eta laguntza jaso ahal izateko.

Erabiltzaileak behar bezala eta edukazio onez tratatuko ditu lan teknikoak egiten dituzten langileak, zerbitzuaren gainbegiraleak eta Arreta Bulegoko langileak.

Erabiltzaileak ez du oztopatuko gainbegiraleen lana eta langile horiei beren lan-jardunean bizikletaren egoerarekin edo BizkaiBizi zerbitzuko elementuekin lotuta argazkiak egiten utziko die.

BizkaiBizi zerbitzuko langileek —gainbegiraleek, teknikariek edo Arreta Bulegokoek— ezin izango dute banakako salbuespenik egin, ezta erregelamendu honetan edo prezio publikoari buruzko araudian zerbitzua arautzeko jasota dauden baldintzak aldatu ere.

Horrez gain, BizkaiBizi zerbitzuko langileek gaizki aparkatuta dauden edo ibilaldi batean gorabeherak eragin ditzaketen bizikletak zerbitzutik kendu ahal izango ditu.

## III. KAPITULUA

### ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK ETA DEBEKATUTAKO JARDUERAK

#### 20. artikulua.— *Erabiltzaileen betebeharrak orokorrak*

Erabiltzaileek, BizkaiBizi zerbitzua erabiltzen duten bakoitzean, konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Zerbitzua eta haren osagai guztiak ahalik eta arreta handienarekin eta erregelamendu honetan ezarritako baldintzen arabera erabiltzea.
- Zerbitzua erabiltzetik eratorritako ordainketa guztiak egitea prezio publikoari buruzko araudian aurreikusitako indarreko tarifen arabera.
- Kontuaren erabilera hirugarren batzuei ez lagatzea, inondik ere, eta kontua behar bezala mantentzea eta erabiltzea.
- Zerbitzua eskuratzeko gakoak eta kodeak (kredentzialak) modu seguruan gordetzea. Gako eta kode horiek ez gordetzearen ondorioz sor daitezkeen kalteen erantzukizuna erabiltzailearena izango da.
- Bizikleta publikoko zerbitzuari kontuarekin izan dezakeen edozein gorabeheraren berri ematea: identitatea usurpatu izana, kontua iruzur eginez erabiltzea, birus informatikoak, etab. Erabiltzailea kontuaren erabileraren erantzule izango da gorabehera zerbitzuari jakinarazten dionera arte.



- f) Erabiltzaile-kontuaren datuak erakustea gainbegiratze-lanetarako baimendutako edo esleitutako langileei edo datuak eskatzen dizkieten agintariei, zerbitzua behar bezala erabiltzen dela egiaztatzeko.
- g) Datuetan egon daitezkeen aldaketak jakinaraztea (adibidez, helbide-aldaketak), baita zerbitzuaren zenbatekoak kobratuko diren banku-txartelean egindako aldaketak ere.
- h) Zerbitzuari emandako datu guztiak benetakoak direla ziurtatzea.
- i) Erabiltzaileak behar bezala eta edukazio onez tratatuko ditu lan teknikoak egiten dituzten langileak, zerbitzuaren gainbegiraleak eta Arreta Bulegoko langileak

**21. artikulua. — Erabiltzaileen betebeharrak espezifikak**

Erabiltzaileek, BizkaiBizi zerbitzua erabiltzen duten bakoitzean, konpromiso hauek hartzen dituzte:

- a) Zerbitzua, eta, bereziki, bizikleta ahalik eta arreta handienarekin erabiltzea, bide-segurtasuna eta oinezkoen segurtasuna arriskuan jarri gabe. Bizikleta ezin izango da abandonatu, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
- b) Bizikleta-ibilaldi bat amaitzean bizikleta estazio batean behar bezala aparkatzea.
- c) Bizikletaren elementuren batek behar bezala funtzionatzen ez duela ikusiz gero, horren berri eman beharko diote zerbitzuari webgunean horretarako dagoen doako telefonora deituta; bizikleta leku batetik bestera eramateko moduan egonez gero, hurbilen dagoen estazioan itzuli beharko dute.
- d) Bizikleta behar bezala erabiltzea eta norberaren garraiorako bakarrik erabiltzea; ezin da alokatu edo helburu komertzialetarako erabili bizikleta publikoko zerbitzua osatzen duen elementurik (hala nola, erabiltzaile-kontua, bizikletak edo estazioak).
- e) Bizikleta zaindu hartzen den unetik zerbitzura behar bezala itzultzen den arte. Bizikleta justifikaziorik gabe abandonatuz gero (ezinbesteko kasuetan izan ezik), dagokion tarifa ordainarazteaz gain, egoki diren neurriak hartuko dira, 26. artikuluan 25. artikuluekin lotuta ezartzen direnak, bizikletari eragindako kalteak ordainarazteko, baita bizikleta berreskuratzeari dagozkionak ordainarazteko ere.
- f) Bizikleta gainbegiraleei ematea haiek, beren lan-jardunean, hala eskatuz gero.
- g) Bizikleta behar bezala erabiltzeko ardura eta hura galtzearen erantzukizuna hartzea.
- h) Bizikleta ebatsi edo lapurtuz gero, erabiltzaileak salaketa jarri beharko du agintaritzaren eskudunaren aurrean eta gertatutakoaren berri eman beharko dio zerbitzuari jarritako salaketaren kopia ere aurkeztuta.
- i) Matxura edo istripurik izanez gero, horren berri eman beharko zaio Arreta Bulegoari bulego horren doako telefonora deituta.
- j) Erabiltzaileak behar bezala erabili behar du BizkaiBizi zerbitzuko bizikleta eta bere gain hartzen du hura behar bezala ez erabiltzearen ondorioz sor daitezkeen kalte guztien erantzukizuna.
- k) Erabiltzaileak neurriak hartu behar ditu bizikletari kalterik gerta ez dakion, gal ez dadin edo lapur ez dezaten. Zehazki, erabiltzaileak bizikleta aparkatzen duenean, bizikletak daukan giltzarrapo elektronikoa erabili beharko du hura behar bezala ibilgetzeko.

Bizikleta estazio batetik kanpo aparkatuz gero, bide-segurtasuneko araudian horretarako berariazko debekurik ez dagoen leku batean utzi beharko da. Hala ere, erabiltzaileak berdin zaindu eta babestu beharko du bizikleta.

**22. artikulua. — Erabiltzailearen eskubideak**

Erabiltzaileak honako eskubide hauek dauzka:

- a) Estazioak eta bizikletak erregelamendu honen araberrako baldintzetan erabiltzeko moduan egotekoa.



- b) Aseguru bat izatekoa, BizkaiBizi zerbitzuan erregistratutako pertsonak indarrean den legediaren arabera izan ditzakeen erantzukizun zibileko ondorio ekonomikoak, hirugarren batzuei eragindako kalte-galeren ondoriozkoak (korporalak, materialak edo bestelako izaera dutenak), estaliko dituen. Erabiltzaileak sisteman erregistratutako erabiltzaile gisa soilik izango du estaldura, baldin eta kalte horiek gertatzen badira araudi honetan zehaztutako jarraibideen arabera bizikle- tekin normal zirkulatzean edo haiek normal erabiltzean.
- c) Zerbitzuari buruzko informazioa eskatu eta jasotzekoa eta iradokizun, erreklama- zio eta kexak egitekoa eta haiei buruzko erantzunak jasotzekoa. Iradokizun, erre- klamazio eta kexa horiek posta elektronikoz edo posta arruntez aurkeztu ahal izango dira, edo, bestela Arreta Bulegoan bertan.
- Zerbitzuaren kudeatzaileak ahalik eta arinen erantzungo dio kontsulta eta/edo erreklamazioari eta, betiere, haiek jaso ondorengo 20 egunen barruan.
- d) Zerbitzuaren gorabeherai, tarifei eta bestelako inguruabarrei buruzko informa- zioa jasotzekoa, webgunearen bidez edo beste edozein bitartekoren bidez.

Akats baten ondorioz BizkaiBizi zerbitzuak zenbatekoren bat bidegabe kobratu badu, erabiltzaileak eskubidea izango du zenbateko hori itzul dakion

#### IV. KAPITULUA

#### EZ-BETETZEEN ARAUBIDEA ETA ZERBITZUA BERREZARTZEKO NEURRIAK

##### 23. artikulua. — *Ez betetzeetarako prozedura*

1. Zerbitzuaren kudeatzaileak hautematen badu, edozein bitartekoren bidez, erabil- tzaileak ez dituela betetzen erregelamenduan jasotako betebeharrak eta hala jasotzen bada kudeatzailearen txosten batean, zerbitzuaren kudeaketa esleituta duen foru-sail eskudunak erabakiko du prozedura bat hastea ez-betetzea aztertzeko, zehazteko eta kalifikatzeko eta, hala badagokio, erregelamendu honen 26. artikuluan jasotako neurriak hartzeko (neurri horien helburua da kaltetutako BizkaiBizi foru-zerbitzua berrezartzea eta haren osotasuna bermatzea, baita zerbitzua era desegokian berriro erabil ez dadila lortzea).

Erabiltzaileari prozedura hasteko erabakiaren berri emango zaio, eta entzunaldiaren izapidearen jakinarazpena ere igorriko zaio. Izapide horretan, 10 egun balioduneko epearen barruan, alegazioak egin eta egokitza jotzen dituen dokumentuak aurkeztu ahal izango ditu; hori guztia, kalterik egin gabe interesdun guztiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 39/2015 Legean jasotako oinarrizko araudiaren arabera dituzten eskubideei.

Bizkaiko Foru Aldundiak, interesdunak entzunaldiaren izapidearen barruan aurkez- tutako alegazio eta dokumentuak aztertu ondoren, dagokion ebazpena hartuko du, bai eta, hala badagokio, dagozkion neurriak ere, eta modu sinesgarrian jakinaraziko dizkio erabiltzaileari, eta jar daitezkeen errekursoen berri emango dio.

2. Ez-betetzeen ondoriozko prozedura hau ebazteko ebazpen espresua jakinaraz- teko gehieneko epea 3 hilabete izango da, prozedura hastea ebazten duen foru-agin- duaren datatik zenbatzen hasita.

Adierazitako epean ebazpenik eman ezean, espedientea iraungi egingo da. Kasu horietan, iraungitzea deklaritzen duen ebazpenak jarduketak artxibatzeako aginduko du.

Aurrekoa gorabehera, prozedura interesdunari egotz dakioken arrazoiren bategatik geldiarazi den kasuetan, hasierara itzuliko da ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa

3. Prozedura agintari baten salaketa baten ondorioz hasten bada, prozedura penal edo administratibo bat dagoelako, bizikleta publikoko zerbitzuaren kudeatzaileak horren berri emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari, kaltetu gisa agertu ahal dadin.



Dagokion prozesu penalean ebazpen judizial irmorik ematen ez den eta Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazten ez zaion artean, eten egingo da ez-betetzearen ondoriozko prozeduraren izapidetzea.

Nolanahi ere, kautela-neurri moduan, erabiltzailearen kontua eta/edo txartela blokeatu ahal izango da, betiere artikulua honen bigarren apartatuan aurreikusitako prozedurarekin bat etorrita eta 26. artikuluan aurreikusitako denbora-mugen barruan

#### **24. artikulua.— *Zerbitzuaren ez betetzat hartutako jokabideak***

Ez-betetze arina izango da:

- Estazio edo bizikleta batean 60 euro arteko kalteak eragitea.
- BizkaiBizi zerbitzuari erabiltzaile-kontuan egon daitekeen edozein gorabehera edo aldaketaren berri ez ematea.
- BizkaiBizi zerbitzuari ez jakinaraztea datu pertsonaletan edo zenbatekoak kobratuko diren banku-txartelari dagozkion datuetan egindako aldaketak, zailtasunak dakartzatenak tarifak edo penalizazioak kobratzeko.
- Arreta Bulegoari ez jakinaraztea erabilera partekatuko bizikleta bat erabiltzean izandako gorabeherak edo edozein estazio edo bizikletatan ikusitako kalteak

Ez-betetze larria izango da:

- Estazio edo bizikleta batean 60 euro-tik gorako eta 200 euro-ra arteko kalteak eragitea.
- Bi ez-betetze arin edo gehiago egitea sei hilabeteko aldian.

Ez-betetze oso larria izango da:

- Estazio edo bizikleta batean 200 euro-tik gorako kalteak eragitea.
- Irainak esatea edo fisikoki eraso egitea lan teknikoak egiten dituzten langileei, zerbitzuaren gainbegiraleei eta Arreta Bulegoko langileei.
- Bizikleta bat abandonatzea.
- Bizikleta erabiltzeko edo edukitzeko gehieneko denbora (hogeita lau ordu) gainditzea, 15. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- Erregelamendu honetan ezarritako eremutik kanpo zirkulatzea.
- Erabiltzaile-kontu bat edo bizikleta bat hirugarren batzuei lagatzea.
- Zerbitzuaren marka edo logotipoak baimenik gabe erabiltzea.
- Zerbitzuko estazio edo bizikleta bat osorik edo partzialki desmuntatzea.
- Zerbitzuaren funtzionamendu onaz arduratzen diren langileei zerbitzuaren edo bizikletaren erabilerari buruzko informazioa emateari uko egitea, haiek informazioa eskatuz gero.
- Ordaindu beharreko tarifak behin eta berriro ez ordaintzea 6 hilabeteko aldian.
- BizkaiBizi zerbitzuari datu faltsutuak ematea zerbitzuaren erabilerekin edo baldintzekin lotuta.
- Erregelamendu honetan berariazko debeku gisa aurreikusitako jokabideetako edozein izatea.
- Bi ez-betetze larri edo gehiago egitea sei hilabeteko aldian.

#### **25. artikulua.— *Ez betetzeak gertatuz gero hartu beharreko neurriak***

Ez-betetze arinak gertatuz gero hartu beharreko neurriak:

- Kautela-neurri moduan erabiltzaile-kontua blokeatu ahal izango da; horrek erabiltzaile-izaera etetea ekarriko du, eta zerbitzua erabiltzeko debekua. Kautela-neurri hau hilabeterako (1) ezarriko da gehienez, baldin eta ez bada aurretik espresuki ebatzi ez-betetzearen ondoriozko prozedura.
- Kasuan-kasuan, tarifa gisa ezarrita dauden zenbatekoak ordaintzea, prezio publikoari buruzko araudiaren arabera une horretan indarrean daudenak.



- BizkaiBizi sistemari eragindako kalteak ordaintzea
- Ez-betetze larriak gertatuz gero hartu beharreko neurriak:
- Kautela-neurri moduan erabiltzaile-kontua blokeatu ahal izango da hilabeterako; horrek erabiltzaile-izaera etetea ekarriko du, eta zerbitzua erabiltzeko debekua. Kautela-neurri hau bi hilabeterako (2) ezarriko da gehienez, baldin eta ez bada aurretik espresuki ebatzi ez-betetzearen ondoriozko prozedura.
  - Kasuan-kasuan, tarifa gisa ezarrita dauden zenbatekoak ordaintzea, prezio publikoari buruzko araudiaren arabera une horretan indarrean daudenak.
  - Joan-etorria amaitzean bizikleta geltoki batean behar bezala aparkatzen ez bada, denbora zenbatzen jarraituko da, eta araudi honen 15. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.
- BizkaiBizi sistemari eragindako kalteak ordaintzea
- Ez-betetze oso larriak gertatuz gero hartu beharreko neurriak:
- Kautela-neurri moduan erabiltzaile-kontua blokeatuko da prozedura espresuki ebatzi arte edo, hala badagokio, iraungi arte.
  - Zerbitzuan baja ematea —horrenbestez, erabiltzaile-izaera galduko da— hiru (3) urtean berriro alta emateko aukerarik gabe.
  - Kasuan-kasuan, tarifa gisa ezarrita dauden zenbatekoak ordaintzea, prezio publikoari buruzko araudiaren arabera une horretan indarrean daudenak. Ildo horretatik, erabiltzaileak ezin izango du zerbitzua erabili ordaindu gabeko tasa guztiak ordaindu arte.
  - Bizikleta bat bertan behera utziz gero, zerbitzuari egindako kaltea ordaintzeko 150 euro kobratu ahal izango dira.
  - BizkaiBizi sistemari eragindako kalteak ordaintzea.

**AZKEN XEDAPENAK****Lehenengo Azken Xedapena.— Aplikatu beharreko araubide juridikoa**

Erregelamendu honetan aurreikusten ez den guztirako BizkaiBizi foru-zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen araudia aplikatuko da, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotako oinarritzko araudia eta aplikatu beharreko gainerako administrazio-araudia ere.

**Bigarren Azken Xedapena.— Indarrean jartzea**

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean BizkaiBizi zerbitzua eskuratu eta erabiltzeari buruzko erregelamendu hau.

Bilbon, 2023ko irailaren 7an.

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa  
Sustatzeko foru diputatua,  
SONIA PÉREZ EZQUERRA

Ahaldun Nagusia,  
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA



**SECCIÓN I**  
**ADMINISTRACIÓN FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA**  
**Diputación Foral de Bizkaia**

**Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo**

**DECRETO FORAL 140/2023, de 7 de septiembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establece el Reglamento de acceso y uso del servicio público de «BizkaiBiz».**

I

La Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible reserva el Capítulo III del Título III a la movilidad sostenible, estableciendo un mandato a las Administraciones, en el ámbito de sus competencias, para la promoción de políticas de movilidad sostenible, que respeten principios como el del establecimiento de nuevos servicios de transporte, supeditado a la existencia de un volumen de demanda acorde con los costes de inversión y mantenimiento, teniendo en cuenta, en todo caso, la existencia de modos alternativos de la debida calidad, precio, seguridad, así como los resultados de su evaluación ambiental.

El artículo 100 de la misma norma establece los objetivos de la política de movilidad sostenible, que deberá perseguir:

1. Contribuir a la mejora del medio ambiente urbano y la salud y seguridad de los ciudadanos y a la eficiencia de la economía gracias a un uso más racional de los recursos naturales.
2. Integrar las políticas de desarrollo urbano, económico, y de movilidad de modo que se minimicen los desplazamientos habituales y facilitar la accesibilidad eficaz, eficiente y segura a los servicios básicos con el mínimo impacto ambiental.
3. Promover la disminución del consumo de energía y la mejora de la eficiencia energética, para lo que se tendrán en cuenta políticas de gestión de la demanda.
4. Fomentar los medios de transporte de menor coste social, económico, ambiental y energético, tanto para personas como para mercancías, así como el uso de los transportes público y colectivo y otros modos no motorizados.
5. Fomentar la modalidad e intermodalidad de los diferentes medios de transporte, considerando el conjunto de redes y modos de transporte que faciliten el desarrollo de modos alternativos al vehículo privado.

Para lograr los objetivos de movilidad sostenible asociados a la salud y la reducción de emisiones nocivas para el medio ambiente, es prioritario aumentar la cuota modal de los medios de movilidad menos contaminantes y más beneficiosos para la salud; caminar y la bicicleta. Estos deben ser seguidos en orden de prioridad por el transporte público y la intermodalidad, frente al uso del vehículo privado de tracción mecánica, que se ha demostrado altamente contaminante por sus emisiones de efecto invernadero, ineficiente, generador de impactos en la salud pública, la siniestralidad asociada a su uso y la ocupación del espacio público urbano.

El papel de la bicicleta pública es el de incentivar la movilidad ciclista en general, poniendo al alcance de la ciudadanía un servicio de bicicletas de calidad y universal, coadyuvando a que la población en general se habitúe a cambiar el coche por la bicicleta en la movilidad cotidiana, ya sea mediante el uso de servicios públicos como con el uso la bicicleta privada.

II

A estos efectos de promoción de la movilidad sostenible que facilite la consecución de los objetivos concretos previstos en el artículo 100 de la Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible, la Diputación Foral de Bizkaia y nueve (9) ayuntamientos del



